

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure baliabideak honela sailka genitzake:

Baliabide fisikoak: Lokal komertziala, esposiziorako material ortopedikoa eta furgoneta.



Giza baliabideak: Negozioaren erantzukizunak horrela geratuko lirateke banatuta enpresaren sortzaileak garen hiru kideen artean; Iraitzen harremanetarako erraztasuna kontuan hartuz, bera izango da dendara heltzen diren bezeroei arreta ematearen arduraduna. Janireren finantzatarako abilezia aprobetxatuz, Finantza Arloaren arduraduna izango da. Horrez gain hornitzaileekin harremanetan jarriko da prezioak negoziatzeko. Azkenik, Helenak, marketing eta publizitateaz arduratzeaz gain, material banaketaren ardura hartuko du bere gain.



Finantza baliabideak: Kontuan izan behar dugu, negozio honek hasierako inbertsio handia exijitzen duela, esposiziorako material ortopedikoa garestia baita, hori dela eta kanpo finantziarioa eskatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Beraz bankuan kreditu bat eskatzea erabaki dugu, aurrerantzean, gure helburua, kanpo finantziarioarekiko menpekotasuna murriztea da, gure erreserba propioekin autofinantzatuz.

